



26. ZENbakia
denok gara Elbarri,
bizkaRRa emanEZ
ElkaRRi

Esku artean dugu jada aldizkariaren 26. zenbakia; goza dezagun bada!

Oraingo honetan, sormenaren alorrarekin egin nahi izan dugu aurrera; alegia, sormena bide gisa erabili nahi izan dugu irakurzaletasuna pizteko. Haurren irakaskuntzan ezinbestean eta eguneroko bizimoduan zaindu eta landu behar den alor bat da eremu sortzailea.

Ez dugu ahaztu behar sormena ondare sozial bat dela, erabaki bat, etorkizuneko erronka bat. Hori dela eta, sormenean hezte apustu bat da etorkizuneko aurrerakuntza, justizia, tolerantzia eta bizikidetzaren alde. (De La Torre, 2003).

Adierazirikoa dela medio, eta irakurzaletasuna sustatzean gure haurren heziketaren bideak irekitzen ari garela jabeturik, sormena oinarri duen irakurzaletze prozesuan murgildu nahi izan dugu aldizkariaren ale honetan.

Goazen aurrera, bada!

0. AZALA

Badakigu haurrentzat azala erakargarria izaten dela normalean; beraz, badago nondik zukua atera aldizkariaren atal honetan, ezta?

Atal honetan sortzailea den zerbait egin nahian, honako hau bururatu zaigu:

- Zure haurraren sormena indartzeko, galdetu ea azala nola irakurri nahi duen eta ea azalarekin zerbait ezberdina egitea gustatuko litzaiokeen. Horrela, haurraren pentsamendua askatasunerantz bideratuko dugu, eta nahi duen horren inguruan gogoeta egin dezan bultzatuko dugu. Ea zer bururatzen zaion!
 - Gero, galdetu ea esaldian dioena ulertzen duen eta, hala ez bada, azal iezaiozu zer esan nahi duen.
 - Amaitzean, galdetu haurrari:
 - *Norantx doazela uste duzu?*
 - *Non aurki ditzakegu horrelako txalupak guk?*
 - *Gustatuko litzaizuke txalupan ibiltzea? Zergatik?*
 - ...



26. zEnbakia
denok gara Elbarri,
bizkaRRa emanEZ
ElkaRRi

1. HARPIDETU ZAITEZ

Sormena ez da norberak jaiotzetik duen gaitasun horretatik datorrena bakarrik; sormena garatu eta estimulatzea guztiz garrantzitsua da. Guk bide horri jarraituko diogu, guretzat ere sormenak garrantzi handia duelako irakurzaletasuna pizteko garaian.

Atal honetan, hauxe proposatzen dugu:

- Orrietan agertzen diren hitzei beste batzuk gehitu, ordezkatu, kendu...
- Erabili imajinazioa, egiten dituzuen aldaketak hasierako zentzu bera izan dezaten.
- Hemen garrantzitsua izango da helduaren rola; izan ere, haurrak izango duen adinaren arabera zailtasunak izan ditzake, eta, beraz, bere gain geldituko da laguntza eskaintzea eta jarduerarako estimulatzea, adibideak emanez, haurra animatuz...

2. AURKIBIDEA

Aurkibidearen atalean sormena indartzeko zer egin dezakegun? Badirudi gizakiaren garapenerako ezinbestekoa den sormena indartzeko garrantzitsua eta baliagarria dela hurrei epaiak gutxitzea eta goraipamenak egitea. Beraz, zergatik ez duzu atal honetan zure haurra goraipatzen, eta egiten duen horren inguruan motibatu eta animatzen?

Hauxe proposatzen dizugu, beraz:

- Animatu eskuinaldeko testua irakurtzera, eta irakurriz doan heinean, honelako komentarioak egin: "Oso ondo!", "Zzeinen ongi irakurtzen duzun, txikito!", "Badakizu ahots izugarri polita duzula?"...

Seguru gaude horrelako komentarioek bere bidean animatu eta motibatuko dutela zure haurra; eta motibazio hori bide apropos eta ezin hobea izan daiteke haren sormena indartu eta garatzeko! Beraz, ez izan beldurrik eta bota horrelakoak lasai asko!



26. zEnbakia
denok gara Elbarri,
bizkaRRa emanEZ
Elkarri

3. PUPU ETA LORE

Badakigu, era berean, sormena lantzeko beste bide eraginkor eta baliagarri bat jolasa dela. Jolasaren bidez, haurren pentsamendua, gogoetatze maila, imajinazioa eta abar indartu eta garatzen da, eta, beraz, baliabide indartsua da alde horretatik.

Beraz, gure haurtxoen atalean haiekin batera jolastera animatzen zaituztegu!

Jolasa honako honetan oinarrituko da:

- Komiki atal bakoitzean, haurtxoek egiten duten hori irakurri beharko duzue, kantuan edo lasai, nahi duzuen bezala.
- Gero, komikian agertzen diren ekintzak oinarri izan eta horiek imitatzen saiatu beharko duzue.
- Amaitzean, galdetu haurrari zein izan den gehien gustatu zaion ekintza eta zergatik.
- Ondoren, esan haurrari berriz irakurriko diozula komikia, eta irakurtzen duzun hori berari azaltzen saiatuko zarela; izan ere, seguruenik ez du guztiz ulertuko bertan adierazten dena.
- Galdera hauek ere proposatzen dizkizugu:
 - *Zer da itsua? Eta herrena? Eta gorra?*
 - *Ezagutzen al duzu pertsona herrenik? Gorrik? Itsurik?*
 - *Zertarako eraman obi dute eskumakila itsuek?*
 - *Nola uste duzu komunikatzen direla pertsona gorrak?*
 - ...

Seguru gaude fenomeno pasatuko duzuela!



26. zEnbakia
denok gara Elbarri,
bizkaRRa emanEZ
Elkarri

4. PIRRITX ETA PORROTX

Pirritx eta Porrotxen atala irakurtzeko, zentzumenekin jolastea proposatzen dizugu. Zentzumenak lantzean eta horien erabilera indartzean, sormena garatzeko bideak ere irekitzen dira. Beraz, oraingo honetan proposatzen dizuguna ere sortzeko gaitasuna landuko duen eremu honetan kokatzen da.

Irakurketa egiteko, hauxe proposatzen dizuegu:

- Esan haurrari zuk irakurriko diozula komikia, eta berak komikia entzun bakarrik egin beharko duela. Horretarako begietan zapia jarri beharko duela esan.
- Begietan zapia jarritz, esaiozu istorioa adi-adi entzuteko aukera izango duela eta horrela seguruenik gehiago gozatuko duela!
- Behin komikia irakurrita, galdetu haurrari nola sentitu den, gustatu zaion...
- Eta nahi badu, galdetu ea berak irakurri nahi duen orain eta, hala bada, jarri zuk zapia begietan, eta irakur dezala nahi duen eran!

5. EUSKARAREN ETXEA

Gure lagun Barritxuren komikia irakurtzeko eta bide batez sormena garatzen jarraitzeko, proposamen hau egiten dizuegu:

- Haurrari esan zuk zeuk irakurriko diozula komikia.
- Komikia irakurtzean, laminaren pertsonaia asmatu beharko du haurrak; beraz, esaiozu istorioko pertsonaia hori asmatu beharko duela.
- Hori horrela, ezin izango duzu laminaren aipamenik egin inondik inora. Ados?

Badirudi asmakizunek eta ustekabeak sormena lantzen laguntzen duela; beraz, segi aurrera eta ea zer bururatzen zaion! Kontuan izan ez dela garrantzitsuena pertsonaia asmatzea, baizik eta prozesu horretan egiten duen lanketa aurrera ateratzea dela gure helburua!



26. ZENBakia
DENOK GARA ELbARRi,
bizKaRRa EMANEZ
ElKaRRi

6. OSASUNA GURE ONDASUNA

Haurrei ardurak uztea, autoerregulazio bideak irekitzea eta abar beste bide bat izan daiteke sormena indartzeko. Alde horretatik, eta aldizkariaren atal hau kontuan izanda, hau egin dezakezuela bururatu zaigu:

- Irakurri bion artean tiritatxoren aholkuak.
- Gero, proposatu haurrari, bertan agertzen diren aholkuak kartoi mehe batean idazteko.
- Esan adi irakurri beharko duela; izan ere, hondartzara edo igerilekura joaten zaretenean, bertan agertzen diren argigarri eta aholkuen ardura hartu beharko baitu.
- Kartoi mehe hori haren logelan itsas dezakezue!

7. DOZENAN 13

Sormena garatzeko beste bide bat inguru estimulagarrietan jardutea izan daiteke. Hori dela eta, Dozenan 13 atala irakurtzeko, bururatzen zaizuen leku eder eta polit batera joan zaitezkezte biok, eta, bertan, nahi duzuen moduan irakurri!

Ea zein toki aukeratzen duzuen!

8. ZENBATAK

Zenbaten ipuina irakurtzen hasi aurretik, guk ariketa hau egitea proposatzen dugu:

- Hitz gakoan zerrenda bat osatuko dugu, eta, jarraian, aurrean dugun haurrari erakutsiko dizkiogu ezarritako hitzak.
- Haurrak hitzak aurrean dituela, ipuin labur bat idazteko eskatuko diogu.
- Gero, ipuina amaitzean, aldizkariko zenbatek kontatzen digutena irakurriko dugu, eta, horren segidan, haurrak gauzatu duena.
- Amaitzeko, bi kontakizunak alderatzeko beta hartuko dugu. Tarte honetan galdera batzuk egin ditzakegu:
 - *Ikusten al diozu antzik?*
 - *Zer da ezberdina eta zer berdina?*



26. ZENbakia
denok gara Elbarri,
bizkARRa EmanEZ
ElkARRi

9. OLIBATXO

GORA IRUDIMEN LIBREA!!

Olibatxok kontatuko duena irakurri aurretik, guk egiteko hau dugu, zuek hala nahi izanez gero.

- Lehenik eta behin, komikian agertzen diren ilustrazioen fotokopia bat aterako dugu, testurik gabe.
- Bigarrenik, kartoi mehez eginiko zati batzuetan itsatsiko ditugu.
- Materiala prest dugularik, mahai gainean edo lurrean, kartoi mehezko zatiak buelta emanda jarriko ditugu.
- Ondoren, txandan-txandan eta banaka, kartoi meheei buelta emango diegu.
- Buelta ematean, aurkitzen den ilustrazioaren gaineko ipuina eratzen hasiko gara.
- Kontuan izan jarraian bueltatuko diren kartoi meheen gainean eraikiko dugun kontakizunak aurrekoarekin zerikusia izan behar duela; ez du balio loturarik ez izateak.
- Amaitzean, irakurri komikia.

10. POSTERRA

Posterra baliabide izugarria izan daiteke sormena garatzeko, ezta? Bada, oraingo honetan, zure esku uzten dugu gaitasun hau lantzean aurrera eraman ahal duzuen bidea eraikitzea!

Seguru gaude zerbait polita eta erakargarria bururatuko zaizula! Aurrera, bada, sormena indartzen eta sortzaile bihurtzeko bideak eraikitzen!



26. ZENbakia
denok gara Elbarri,
bizkARRa EmanEZ
ElkARRi

11. FILOSOFOAK

Orain ere, komikia irakurri aurretik egin beharreko jolas bat proposatuko dugu, non irudimena lantzea guztiz garrantzitsua izango den.

- Lehen pausoan, aurrean duzun horri jolasa azalduko diozu, eta ondo ulertu duela ziurtatu:
 - o *Aste honetan, egunero-egunero arrasto bat utziko dizut leku jakin batean.*
 - o *Arrasto horiek aste amaieran irakurriko duzun atala zein den asmatzeko balioko dute.*
 - o *Aste amaieran, nik galdetuko dizut ea zein atali dagozkien lortutako arrasto horiek.*
- Kontuan hartzeko irizpide bat: hasierako arrastoak oso azalekoak izango dira, baina egunak pasa ahala arrasto zehatzagoak izatea aholkatzen dugu.
- Aste osoan zuri dagokizu haurra zirikatzea, animatzea, intriga piztea...

12. MARTINBERTSO

AUSARTUKO AL ZARETE ZUEK IRAKURZALETASUNA PIZTEKO JOLASA SORTZEN?

Martin Bertsoren atalean, zuen irudimena eta sormena martxan jartzeko modua eskainiko dizuegu. Ziur gaude dagoeneko irakurzaletasuna pizteko jolasetan zuek ere jakinduria handia izango duzuela. Ea zer-nolako jolasa eratzen duzuen!



26. ZENbakia
denok gara Elbarri,
bizkaRRa emanEZ
ElkaRRi

13. 'LAGUN'

Talde handi batean sormena eta irudimena lantzeko jolas paregabera duzue hau:

- 1.PAUSOA: Bi talde eratzea.
- 2.PAUSOA: Partaide bakoitzak komikia irakurtzea.
- 3.PAUSOA: Talde bakoitzak komikiari buruzko galderak osatuko ditu.
- 4.PAUSOA: Talde batek besteari galderak egiteko eta erantzuteko garaia.

EA, BA, ZENBAT ASMATZEN DUZUEN!!

14. LARGABISTA

NOR NAIZ?

Irakurri komikia jolasean hasi aurretik; gero, haxe proposatzen dugu:

- Komikia irakurri ondoren, bertan agertzen diren objektuen edo pertsonen deskribapenak edo arrastoak idatzi kartoi mehe batean.
- Idatzi ondoren, mahai gainean edo lurrean jarri.
- Txandaka, kartoi mehea hartu eta aurrean duzunari irakurri bertako arrastoak.

ORAIN IKUSIKO DUGU ZER-NOLAKO IRUDIMENA DUZUEN!!



26. zEnbakiA
dEnok gaRa ElbaRRi;
bizKaRRa EmaNEZ
ElKaRRi

15. MARIKALANBRE

Marikalanbreren atala irakurtzeko, lehenik eta behin, zerbait barregarria kontatu zure haurrari; izan ere, barreak guztiz estimulatzen baititu zentzumenak! Eta arestian aipatu legez, zentzumenak estimulatzean sormena lantzeko aukerak ere areagotzen dira! Beraz, kontatu haurrari txisteren bat!

Gero, irakur dezala lasai-lasai komikia, eta, amaitzean, egin ieazakiozu komikiaren inguruko galderak; ea ondo ulertu duen.

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Animatzen al zarete poesia lantzerantz? Olerkiak gure pentsamendu, sentimenen, nahien adierazle izan ohi dira. Askotan, ez dugu sinesten gure irudimenak noraino eman ahal izango gaituen. Atal honetan, komikia irakurri ondoren, bakoitzak nahi dituen bost hitz hautatu behar ditu; gero, hitz horiekin olerki bat osatuz joango zarete. Amaitzean, olerki lehiaketa bat antola dezakezue, epaimahai eta guzti. Kontuan izan haurrak olerkiak egiten ez badaki lagundu egingo diogula, ados?

Ainhoa Mendizabal eta Saioa Ibarguren